

Txikizkako sektorearen salmentek % 0,3ko igoera izan dute 2022ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEn, gasolina-zerbitzugunerik gabe % 1,2ko beherakada izan badute ere


Urte osoan, salmentek % 2,9ko igoera izan dute

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorearen salmentek % 0,3ko igoera izan dute 2022ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, egutegiaren ondorioak atera ondoren eta prezio konstanteetan.

Salmenten guztizkoak, gasolina-zerbitzuguneak kontuan hartu gabe, % 1,2ko beherakada izan du 2022ko azken hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, berriz, bidezko urtaro-ondorioak kenduta, 2022ko laugarren hiruhilekoko salmenta-indizeak % 0,1eko beherakada izan du.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Sektoreka, 2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, *Elikagaietan* prezio konstanteetan egindako salmentek % 1,6ko beherakada izan dute urtetik urtera. *Gainerako produktuen* kasuan, salmentek % 0,8ko beherakada izan dute 2022ko laugarren hiruhilekoan, 2021eko azken hiruhilekoarekin alderatuta. *Automoziorako erregaiaren* sektorean, berriz, salmentak aurreko urteko azken hiruhilekoan baino % 22,4 handiagoak izan dira.

2022ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, urtaro-ondoriorik gabe eta prezio konstanteetan, *Automoziorako erregaiaren* eta *Gainerako produktuen* salmentek % 5,3ko eta % 0,9ko igoera izan dute, hurrenez hurren. *Elikagaietan* egindako salmentek, berriz, % 1,4ko beherakada izan dute hiruhilekotik hiruhilekora.

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2022/IV

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / At-4
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	0,3	-0,1	2,9
Araba/Álava	0,6	0,9	-0,1
Bizkaia	2,8	0,8	3,2
Gipuzkoa	-3,6	-1,8	3,7
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	-1,6	-1,4	-0,4
Elikagaien saltoki espezializatuak	-6,2	-1,6	-1,3
Elikagaiak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	0,6	0,3	0,1
Gainerako produktuak	-0,8	0,9	5,2
Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	6,5	2,0	10,1
Etxearen ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	-3,7	-2,5	8,2
Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako establezimenduak	-10,3	-3,9	-4,3
Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	-2,0	1,4	-5,2
Automoziorako erregaiak	22,4	5,3	7,1
INDIZE OROKORRA gasolindegirik gabe	-1,2	-0,2	2,6
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	1,8	0,3	1,7

(p) Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteko arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/At(4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Data 2023ko Otsailaren 8a

Iturria: Eustat. Txikizkako Merkataritzaren Indizea (BMI)

Elikagaien lotutako txikizkako merkataritzaren barruan, *Elikagaietan*, *edarietan* eta *tabakoan espezializatutako* merkataritzan (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak eta abar) egindako salmentek % 6,2ko beherakada izan dute 2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Aitzitik, *Elikagaiak*, *edariak* eta *tabakoa nagusi diren espezializatu gabeko* txikizkako merkataritzan, salmentek % 0,6ko igoera izan dute.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan, 2022ko laugarren hiruhilekoko salmentek aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta izan duten bilakaera ez da homogenea izan. *Beste kontsumo-ondasun batzuetan espezializatutako* sektorean (kirol-gaiak, jokoak edo jostailuak, besteak beste), salmenten beherakada % 10,3ra iritsi da, *Etxeko ekipamenduetan espezializatutakoan* (etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipamenduak) % 3,7ra, eta *Gainerako produktuak nagusi diren espezializatu gabekoan* (korrespondentzia edo Internet), berriz, % 2,0ra. *Pertsonen*

ekipamenduan espezializatutako merkataritzan (arropa, oinetakoak eta kosmetikako edo higieneko produktuak), aldiz, % 6,5eko igoera izan da urtetik urtera.

Lurralde historikoak kontuan hartuta, 2022ko laugarren hiruhilekoko salmenten indizeak % 2,8ko igoera izan du urtetik urtera Bizkaian, eta % 0,6koa Araban. Gipuzkoak, berriz, kontrako joera agertu du, eta salmentak aurreko urteko hiruhileko berean erregistratutakoak baino % 3,6 txikiagoak izan dira.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, salmenten bilakaera positiboa izan da Araban eta Bizkaian, eta % 0,9ko eta % 0,8ko igoerak izan dituzte, hurrenez hurren. Gipuzkoako salmentek, aldiz, % 1,8ko beherakada izan dute urteko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Euskal AE osoan, 2022ko laugarren hiruhilekoan txikizkako merkataritzaren sektorean aritu diren langileen kopuruak % 1,8ko igoera izan du aurreko urteko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. 2022ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, berriz, enpleguak % 0,3ko igoera izan du.

2022. urteko balantzea

2022ko lau hiruhilekoetan metatutakoa kontuan hartuta, txikizkako merkataritzaren salmentek % 2,9ko igoera izan dute. Ildo horretan, *Automoziorako erregaia* eta *Gainerako produktuak* azpisektoreek ekarpen positiboak egin dituzte (% 7,1eko eta % 5,2ko igoera, hurrenez hurren). *Elikagaien* sektorean, berriz, 2022. urte osoan metatutako salmentak 2021ekoak baino % 0,4 txikiagoak izan dira.

Lurralde historikoak kontuan hartuta, 2022. urtean txikizkako merkataritzaren salmentek % 3,7ko igoera izan dute Gipuzkoan, eta % 3,2koa Bizkaian. Araban, berriz, % 0,1eko beherakada izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, laugarren hiruhilekoko indizea laginaren **% 94,1eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62